

Buletineko gaiak:

1. Jantokiko erabiltzaileentzat oharra
2. Errigoraren banaketa: astebete atzeratuta
3. Urmendi Festa: maiatzak 29
4. Xanistebanetako txosnako txandak
5. Ikastola Eguna: ginkana
 - Apartekoak

Berri orokorrak

1. Jantokiko erabiltzaileentzat ohar garrantzitsua

Gogoratu nahi dizuegu **datorren ekainaren 13tik 21a bitarte, ikasturteko azkeneko egunetan, ikasleak jardunaldi murriztua izango dutela, goizez bakarrik. DBHko ikasleek astelehenetik ostiralera ondorengo ordutegia izango dute: 09:00-13:10. Jantokian geratuko direnek zaintza izango dute 14:00ak arte eta jarraian jantokiko zerbitzua izango dute 15:15ak arte.**

Jantokia antolatzen ari gara, eta erabiltzaile diren ikasleek **egun horietan jantokia erabiliko duten jakin behar dugu.** Azken egunean, ekainaren 21ean ere, zerbitzua eskainiko dugu.

Jantokiko erabiltzaile finko guztiek bete behar dute inprimakia. Ikasle bakoitzeko inprimaki bat bete behar duzue eta bertan zehaztu irteteko baimenak ere. Datu horiek orain jakitea beharrezkoa dugu gure antolaketarako. **Maiatzaren 24a izango da aldaketen berri emateko azken eguna. Izena emateko inprimakia: <https://forms.gle/VW6yZ7jnyjckWHf7>**

Temas del boletín:

1. Aviso para usuarios-as del comedor
2. Reparto de Errigora: una semana de retraso
3. Fiesta de Urmendi: 29 de mayo
4. Turnos de la txosna de xanistebanes
5. Ikastola Eguna: ginkana
 - Otros temas

Temas generales

1. Aviso importante para usuarios-as del comedor

*Os recordamos que, del 13 al 21 de junio, últimos días del curso, los alumnos-a tendrán una jornada reducida, solo de mañanas. Los alumnos-as de ESO tendrán de lunes a viernes el siguiente horario: de 09:00 a 13:10s. Los y las que se queden en el comedor tendrán **vigilancia hasta las 14:00 y a continuación tendrán servicio de comedor hasta las 15:15.***

*Estamos organizando el comedor y tenemos que saber **si los usuarios-as del comedor utilizarán el comedor esos días.** El último día, el 21 de junio, también ofreceremos el servicio.*

Todos los usuarios-as fijos-as del comedor deben cumplimentar el formulario.** Hay que rellenar un formulario por alumno-a y especificar los permisos de salida. Para nuestra organización necesitamos saber estos datos ahora. **El 24 de mayo será el último día para comunicar los cambios. Formulario de inscripción: <https://forms.gle/VW6yZ7jnyjckWHf7>



2. Errigoraren banaketa astebete atzeratuko da

Lerro hauetatik **eskerrak eman nahi dizkizuegu** Errigoraren udaberriko kanpainan parte hartu duzuei. Sekulako arrakasta izan du aurten ere!

Bestalde, ohar bat helarazi nahi dizuegu. Gehienek jakingo duzuen bezala, Errigoraren produktuen banaketa (olioa eta kontserbena) astebete atzeratuko da.

- **Egunak:** maiatzak 19 eta 20
- **Ordutegia:** 08:00-12:00 / 14:30-17:00

3. Urmendi Festa: maiatzak 29

Maiatzaren 29an, igandea, ospatuko dugu, aurten bai, Urmendi Festa ere. **10:30etik 13:00etara** inguru egitaraua ondorengoa izango da:

- Guraso eta irakasleen artean prestaturiko **antzerkia**, 10:30ean.
- **Txoko desberdinak:** talogileen txokoa, goxo denda, aurpegi pintaketa, photocall-a, fruta eta edari txokoa, baita sormen txokoa ere.

Musika doinuaz alaituko dugu goiza eta hamaiketako ere ez da faltako. Animatu!

4. Xanistebanetako txosnan lan egiteko izen-ematea

Guztira 150 lagun behar ditugu txandak osatzeko, txanda bakoitzeko 28 lagun inguru; urtero lan egiten duzue gain orain arte tabernan lana egin ez duzuenen partehartzea ere beharrezkoa dugu.

2. El reparto de Errigora se retrasa una semana

*Desde estas líneas **queremos agradecer** a todos-as los y las que habéis participado en la campaña de primavera de Errigora. ¡Ha vuelto a ser un éxito!*

Por otra parte, queremos hacer os llegar una nota. Como la mayoría sabrá, la distribución de los productos de Errigora (aceite y conservas) se retrasará una semana.

- **Días:** 19 y 20 de mayo
- **Horario:** 08:00-12:00 / 14:30-17:00

3. Fiesta Urmendi: 29 de mayo

*El domingo 29 de mayo celebraremos, este año sí, la Urmendi Festa. **De 10:30 a 13:00** el programa será el siguiente:*

- **Teatro** preparado entre padres, madres y profesores-as a las 10:30 horas.
- **Diferentes rincones:** el rincón de los talogiles, la tienda de dulces, el pintado de caras, el photocall, el rincón de la fruta y la bebida, así como el rincón creativo.

Animaremos la mañana con melodías musicales y tampoco faltará el hamaiketako. ¡Animaos!

4. Inscripción para trabajar en la txosna de xanistebanes

***Necesitamos 150 personas** para completar los turnos, unas 28 personas por turno; además de las personas que trabajáis todos los años, necesitamos la participación de las que hasta ahora no lo habéis hecho.*



EGIN BEHARREKO LANAK

1) Abuztuaren 2tik 6ra:

- 1. txanda (16:00-19:00)
 - Sukaldeko lanak: janaria prestatzen hasi
 - Tabernako kamarak edariz bete
 - Mahaiak eta aulkiak prestatu
- 2. txanda (19:00-bukatu arte)
- **Oharra:** Txanda motzetan, HH-n haurrak dituzten gurasoak lehenesten ditugu.

2) Madalenetan, Orereta Ikastolako tabernako txanda: uztailaren 21ean.

Xanistebanetan lan egitea gaizki badatorkizue, txanda honetan izena ematera animatzen zaituztegu. Madalenetan Haurtzaro Ikastolak lan egiten du hango txanda batean eta Oreretako beste batzuk abuztuaren 2an gure tabernan aritzen dira lanean, koadrilen afari egunak direlako bi egunak.

Jarraian duzue izena emateko inprimakia:

<https://forms.gle/ak5tZaHaVDkZDVS7>

5. Ikastola Eguna: ginkana

Ikastolaren eguneko antolaketarako zenbait informazio aurreratu nahi dizuegu, eta zuen laguntza eskatu:

- Ikasleek hainbeste estimatzen duten ginkanarekin hasiko da **08:00etan**. LH3. mailatik DBH4. maila arteko ikasleak hartu dezakete parte. Izena emateko zerrendak eta araudia, parte hartu dezaketen ikasleen **geletan** zintzilikatu ditugu. Jada izena eman dezakete ikasleak eta horretarako epea **maiatzaren 23an** amaituko da.

TRABAJOS A REALIZAR

1) Del 2 al 6 de agosto:

- 1ª Tanda (16:00-19:00)
 - Tareas de cocina: empezar a cocinar
 - Llenar de bebidas las cámaras del bar
 - Preparar mesas y sillas
- 2ª Tanda (19:00-hasta cerrar)
- **Nota:** en turnos cortos, priorizamos a los tienen hijos en HH (primaria).

2) Turno en el bar de la Ikastola Orereta: 21

de julio. Si os viene mal trabajar en xanistebanes, os animamos a que os apuntéis a este turno. En madalenas trabaja la Ikastola Haurtzaro en un turno de allí y otros de Orereta trabajan el 2 de agosto en nuestro bar, porque los dos días son días de cena de cuadrillas.

A continuación, tenéis el formulario de inscripción:

<https://forms.gle/ak5tZaHaVDkZDVS7>

5. Ikastola Eguna: ginkana

Queremos adelantaros alguna información sobre este día y pedir os vuestra colaboración.

- Daremos inicio a la Ikastola Eguna a las **08:00** con la ginkana. Ya se han colocado **en las aulas** de LH3 a DBH 4 las hojas de inscripciones para la misma, por lo que los alumnos-as ya se pueden inscribir **hasta el 23 de mayo**.
- **Necesitamos vuestra colaboración**, para poder realizar esta actividad y para que puedan



- **Laguntza eskaera: GINKANArako 70 guraso behar ditugu.** Urtero bezala, ginkana antolatu ahal izateko, eta horrela nahi duten ikasle guztiek parte har dezaten, 70 gurasoen laguntza beharrezkoa dugu. Jarraian duzuen, ginkanan lagundu ahal izateko inprimakia eta epea maiatzaren 23an amaituko da. (ginkanaren iraupena: 07:30-11:00):

<https://forms.gle/6G9U4fT57bPmHo9q7>.

- **Gogoratu:** gurasorik gabe ezinezkoa izango dela egitea. Azken egunean izenik eman gabe bertaraten da guraso asko, baina hori antolatzaileentzat ez da forma egokiena. Mesedez aurrez izena eman ezazue! Izena ematen duzuen gurasoentzat oharra: txaleko reflektantea behar duzue egun horretarako.
- **BAZKARIA ETA PROGRAMA:** Bazkarirako txartelen salmentaz eta egitarauaz aurrerago informatuko zaituztegu.

Eskolaz kanpoko ekintzak

1. Hezitzaileen lan poltsa 2022-23 ikasturterako

Eskolaz kanpoko ekintzetako hezitzaileen lan poltsa osatu nahi dugu 2022-2023 ikasturterako.

Webgunearen bidez bidali ditzakezue zuen curriculumak: [Gurekin Lan Egin](#).

Azken eguna: ekainak 15.

*participar todos-as los-as alumnos-as que se inscriban, necesitamos la **ayuda de 70 voluntarios-as**. A continuación, tenéis el enlace del formulario para poder inscribiros y el último día será el 23 de mayo, martes. (duración de la ginkana: 07:30-11:00):*

<https://forms.gle/6G9U4fT57bPmHo9q7>

- **Nota importante:** El mismo día venís muchos padres-madres sin estar apuntados-as a echar una mano. De esta manera nos es muy difícil organizar esta actividad; os pedimos que deis vuestro nombre con antelación. Sin la colaboración de los padres-madres no podremos organizar la ginkana ¡Animaos! Los-as padres-madres que colaboréis en la Ginkana **debéis traer un chaleco reflectante**.

- **COMIDA y PROGRAMA DEL DÍA:** Os informaremos más adelante de los tickets de la comida y del programa.

Actividades extraescolares

1. Bolsa de trabajo de educadores/as 2022-23

Queremos formar una bolsa de trabajo de educadores de actividades extraescolares para el curso 2022-2023.

Podéis enviar vuestros currículums **a través de la web:** [Gurekin Lan Egin](#).

Último día: 15 de junio.

